

MASKARA FALTSUAK INPORTATU DIRELA OHARTARAZI DU BRUSELAK

Babes pertsonalerako produktuen eskaria nabarmen handitu da koronabirusaren ondorioz, eta iruzurgileak aukera hori baliatu nahian ari dira. Brusela hasia da horien aurkako neurriak hartzen.

Bruselak konfiskatutako maskara faltsu bat. OLAF

2020ko martxoak 20

Koronabirusaren pandemia dela eta, badira negozio aukera berriak bilatzen ari diren pertsonak; tartean, iruzurgileak. OLAF erakundeak gaur jakinarazi duenez, ikertzen hasi dira Europara atzerritik datozen zenbait produktu koronabirusaren pandemiaren aurka egiteko balio dutenak, edo ustez balio dutenak behintzat.



Handia da babes pertsonalerako produktuen eskaria, baita garbiketarako produktuen ere. Bestelako produktuak ekoizten dituzten enpresak hasiak dira jada maskarak eta batak ekoizten, eta produktuok etxean nola egin erakusten duten bideoak ere biralak egiten ari dira.

Horregatik, OLAFek borroka hasi du osasuna babesteko balio ez duten inportazioko produktuen aurka, eskari handiaz baliatu nahi duten iruzurgileei aurre egiteko. Denetarik aurki daiteke faltsifikatutako produktuen artean: maskarak, medikuntzarako tresnak, desinfektatzaileak, eskuetarako xaboiak eta probak egiteko kit-ak, besteak beste.

Iruzurraren aurkako bulegoak jakinarazi duenez, pandemia hasi zenetik ari dira legez kanpoko trafiko horren inguruko informazioa biltzen, eta etengabe harremanetan daude Europako Batasuneko herrialdeekin, baita kanpoko batzuekin ere.

Internet bidez

OLAFeko arduradunen iritziz, «produktu horiek Europara sartzea eragozteko ezinbestekoa da guztion ongizatea babesteko». Azaldu dutenez, konfiskatu dituzten produktuak ez dira eraginkorrak birusaren aurka, eta osasunarentzat kaltegarriak ere izan daitezke batzuk.

Dena den, iruzurgileentzat «merkatu erakargarria» dela nabarmendu dute, eskaria dela-eta irabaziak ere handiak izan baitaitezke. Adibidez, Internet bidez faltsututako maskarak 5 edo 10 euroan eros daitezke, ohiko prezioa baino hiru bider garestiago. Interneta da etxeetara iristeko darabilten tresna nagusia.

GALDERAK

1. Zein da albistearen gai nagusia?
2. Zer ikertzen ari da OLAF erakundea?
3. Zer produktu izan daitezke faltsifikatuak egoera hauetan?
4. Zergatik abiatu dute ikerketa OLAF erakundekoek?
5. Zein da guregan maskara faltsuek duten eragina?
6. Zer preziotan eros daitezke maskara faltsuak?
7. Ezagutzen duzu beste iruzur (estafa/trampa) kasurik?
8. Zer iruditu zaizu albistea? Ikusia zenuen? Erraz ulertu duzu? Ezetza bada, zergatik?